

2016ko apirilaren 22a, ostirala

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1695

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 22koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerentzako 2016. urtean emandako laguntzen berri ematen duena.

2015eko abenduaren 30ean argitaratu zen EHAAn 2015eko abenduaren 28ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerak 2016. urtean garatzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautzen duena.

2015eko abenduaren 28ko Aginduaren 12.1 artikulua dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, onuradun gertatzen direnei egingo direnei banakako jakinarazpena egitea eragotzi gabe.

Horiek horrela izanda,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko abenduaren 28ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta baita horien guztien onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 22a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2016ko apirilaren 22a, ostirala

ERANSKINA

Antzerkiko profesionalen prestakuntza integrala lortzera zuzendutako ikastaroak antolatzen dituzten egitarauentzako diru-laguntza eman zaienen zerrenda.

Eskatzailea	Diru-laguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza
Asoc. Taller de Artes Escenicas	TAE Donostia	15.000
Pedagogia del Arte, S.L.L.	Artebi	3.500
Porpol, S.Coop.	TAE Vitoria-Gasteiz	26.000
Te atrako teatro de Barakaldo	BAI, Bizkaiko Antzerki Ikastegia	14.500
Utopian Getxoko antzerki eskola Koop. Elk. Txikia	Utopian	24.000

Antzerkiko profesionalen prestakuntzarekin lotutako arlo zehatzetako prestakuntza jarduerentzako dirulaguntza eman zaienen zerrenda.

Eskatzailea	Diru-laguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza
Artedrama, S.L.	ADEL	1.000
Unima Euskal Herria	Udazkeneko eskola	4.000